

TXORIMALO BATEN AZKENA

Gaizka Amondarain

Arantzazu, 15 urte

Ni txorimalo bat naz, txorien arerio izateko egin daben trapuzko gizonkiloa. Ezin dot seguru esan, baina gitxi gorabehera aste bat daroat kamaran botata, ezertarako balio ez daben gauzakaz batera. Ia beti bakarrik, baina sarritan goizalde inguruan, mozoiloa bisitan etorten jat. Ni holan lurrean botata ikusita, ez da bildurtu be egiten. Bere begikunekak bihotza eta burua dardaraz ipinten deustaz. Aurreko gauean hurreratu bildu eta sorbalda ingurutik lasto zati bat kendu eustan, lotsagarria izan zan niretzat.

Nik txoriei ez deutset inoz txarrik opatu eta eurak ni ezin nabe begien aurrean ikusi.

Beharbada onegia naz. Ganera onegia izatearren nago lastategi hontan:

Ni luzaroan ibili naz landarik-landa, solorik-solo. Aldiro aldatuten ninduen lekuz eta eskegiten ninduen leku guztietan ez zan txori bat be ikusten. Txoririk handiena be nire bildur zan. Landa erdian nengoan beti, adino, eta gura barik inguruko birigarro eta zozo guztiak uxatuten. Sarritan ibiltzen nintzan txoriak erakarri gurean, baina ez egoan modurik.

Ezin neban aurpegi alairik jarri, ezin neban berbarik egin, han betiko geldi eta triste egotera behartuta nengoan.

Ez nintzan nire botereagaitik arro sentiduten,

eta denporeagaz egoera hartara ohituten joan nintzan.

Pasatu zan urtea eta nik paraje desberdinak eza-gutu nebazan, eurite eta bero aldiak pasatu...

Egun askotan nire botoiak, begiak bere ez neba-zan zabalduten. Ondoan txori bat ikusteko espe-rantzea galduta neban. Baina negu osteko eguerdi baten nire lepo ganean zama bat somatu neban, ez zan hainbestekoa erropa bustien pisuegaz aldera-tuta.

Atoan zabaldu nebazan botoiak eta bai, txori bat zan! Birigarro ederra itxureagaitik. Gosetuta egoan. Negu gogorra pasatuko eban.

Izerdi bitsetan nengoan. Beragaz berbaldi bat eduki gura neban, baina ahoa josita neban, bene-tan be! Nahiz eta nire poza ezin kanporatu, orain bizipoza baneban. Gauetan lorik be ez neban egi-ten. Burua zoro haizez bete jatan. Ametsetan bizi nintzan.

Gauaren ostean eguna dator, baina egun hura etorri ez bazan hobeto. Zoritxarrez inoz baino beranduago itzartu nintzan, hainbeste gau lo egin barik pasatearen ondorioz. Birigarroz eta zozoz inguratuta itzartu nintzan. Nire frakak, alkondara, botoi biak eta txapela pikukadakaz birrintzen ari ziran. Ordu erdian narru-narru egin ninduen.

“Zergaitik!” –ohiukatu neban auzoko txakurren ahausiak sortaraziz.

Itaun bera egin neutsan nire lasto multzoari, buruari. Pentsetan jardun neban eta lehenengo txoriak nire lagun egitearen eta geroko faenearen

arrazoiak topatu nebazan; urtean zehar euriagaitik eta eguzkiagaitik, hasieran koloretsu eta txorien-tzat bildurgarri ziran erropak kolorea galdu eben eta horregaz batera txoriak euren bildurra lotsabako eta fatuen moduan eriotzera eraman ninduen edo hobeto esanda, langabezira bialdu nabe modu gogorrean. Orain eurengaitik nago iluntasun honetan galduta.

Apurka-apurka arratoi eta saguen lagun egiten nabil, hauekaz fazilago daukat ez dira txorien bes-teko koldarrak eta. Baina, zoritxarrez, hauekaz be ezin barbarik egin, ezin komunikatu. Ez naz kamaran dagozan lasto moltsoetatik desberdina.

Gaur, nire lasto buru txarto ez badabil, San Juan bezpera da eta ni artega nago, txarrena pentsetan. Zeozerk ilunetan luzaroango egongo ez nazala dinost.

Aiko hamen! Aspaldiko partez jefea be etorri jat. Ni hiru hankadun aulki, ginarra apurtu eta estaka ustelakaz batera karretilan hartuta behera naroa. Han ikusten da zorioneko San Juan sua, zapoak eta sugeak erreteagaz ez ete dauka nahikoa? Ni berakata baino finagoa izin naz beti eta halan eskertuten deuste.

Ba neu be hor noa, betirako. Gauza bat behintzat badaukat alde; zerura joango nazala seguru, kea beti zerurantz da eta.